

## Xedapen Orokorrak

### ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

3381

AGINDUA, 2011ko ekainaren 30ekoa, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuarena, telelaguntzaren zerbitzu publikoari 2011. urtean aplikatu beharreko prezio publikoaren zenbatekoa eta salbuespena zehazteko dena.

Irailaren 11ko 1/2007 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren tasa eta prezio publikoei buruzko Legearen Testu Bategineko 33. artikulua ematen dizkidan eskumenez baliatuz, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta horren erakunde autonomoek prezio publikoen bidez ordain ditzaketan zerbitzuak eta jardunak zehaztu zituen irailaren 28ko 249/2010 Dekretuarekin bat etorriz, Ogasun eta Herri Administrazio Sailak dagokion txostenaren aldeko txostena eman duenez, hau

XEDATU DUT:

**1. artikulua.**– Prezio publikoaren zenbatekoa zehaztea.

1.– Eusko Jaurlaritzaren titulartasuneko telelaguntza-zerbitzu publikoaren prezio publikoa hilean 4 eurokoa izango da 2011. urtean.

2.– Eusko Jaurlaritzaren titulartasuneko telelaguntza-zerbitzu publikoari buruzko Dekretua indarrean sartzean Arabako Foru Aldundiaren, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren edo Gasteizko Udalaren telelaguntza-zerbitzuaren erabiltzaile diren erabiltzaileek ordaindu beharreko prezio publikoaren zenbatekoa ez da izango Telelaguntza Zerbitzu Publikoa arautzen duen Dekretua indarrean sartu aurretik erakunde horiek emandako zerbitzuaren erabiltzaile gisa legokiekena baino handiagoa.

**2. artikulua.**– Prezio publikoa administratu eta kobratzea.

1.– Telelaguntza-zerbitzu publikoaren prezioa gizarte-gaien arloko eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Sailak administratu eta kobratuko du.

Prezio publikoa hileroko eskatuko da, hilabete naturala amaitzean, eta zenbatekoa hilabete horretan zerbitzua baliatu den egunen proportzioan zehaztuko da.

## Disposiciones Generales

### DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y ASUNTOS SOCIALES

3381

ORDEN de 30 de junio de 2011, de la Consejera de Empleo y Asuntos Sociales, por la que se fijan la cuantía del precio público y la exención aplicables al servicio público de teleasistencia en 2011.

En virtud de las facultades que me confiere el artículo 33 del Texto Refundido de la Ley de Tasas y Precios Públicos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco aprobado por Decreto Legislativo 1/2007, de 11 de septiembre, y de acuerdo con el Decreto 249/2010, de 28 de septiembre, por el que se determinan los servicios y actividades susceptibles de ser retribuidos mediante precios públicos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de sus Organismos Autónomos, habiéndose informado favorablemente el expediente correspondiente por el Departamento de Economía y Hacienda,

DISPONGO:

**Artículo 1.**– Fijación de la cuantía del precio público.

1.– El precio público del servicio público de teleasistencia de titularidad del Gobierno Vasco en 2011 se fija en 4 euros mensuales.

2.– La cuantía del precio a abonar por las personas usuarias que a la entrada en vigor del Decreto del servicio público de teleasistencia de titularidad del Gobierno Vasco fueran usuarias del servicio de teleasistencia de la Diputación Foral de Álava, de la Diputación Foral de Bizkaia, de la Diputación Foral de Gipuzkoa o del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, no será superior a la que les correspondiese como usuarias del referido servicio prestado por las citadas instancias antes de la entrada en vigor del Decreto regulador, del servicio público de teleasistencia.

**Artículo 2.**– Administración y cobro del precio público.

1.– La administración y cobro del precio del servicio público de teleasistencia se realizará por el Departamento del Gobierno Vasco competente en materia de servicios sociales.

El precio público se exigirá mensualmente, al término de cada mes natural, y el importe será proporcional al número de días del mes vencido en los cuales se haya disfrutado del servicio.

2.– Ordainketa eskudiruz egingo da, irailaren 11ko 1/2007 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren tasa eta prezio publikoei buruzko Legearen Testu Bategineko 21. artikulua zehazten dituen bideetako edozein erabiliz.

**3. artikulua.**– Salbuespena.

1.– Erabiltzaileak prezio publikoa ordaintzetik salbuetsita egongo dira beren hileroko diru-sarreraren zenbatekoa erreferentziako aldirako zehaztutako Ondorio Askotariko Errenta Adierazle Publikoaren (IPREM) berdina edo txikiagoa bada.

2.– Telelaguntza-zerbitzuaren prezioaren ordaintzetatik salbuesteko eskaera Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Zerbitzuetako zuzendariaren Ebazpenez onartu edo ukatuko da.

3.– Bizikidetzako unitateko kideak ekonomikoki zerbitzuaren erabiltzailearen mende daudenean eta zerbitzuaren erabiltzailea adingabea denean, baliabide ekonomikoak zenbatzeko bizikidetzako unitatea izango da kontuan. Kasu horietan pertsona erabiltzailearen hileroko diru-sarreraren zenbatekotzat honakoa hartuko da: Agindu honetako 4. artikuluan xedatutakoaren arabera kalkulaturako bizikidetzako unitateko kide guztien urteko diru-sarreraren batura hamabi hila-beteen eta bizikidetzako unitateko kideen kopuruaren artean zatitzearen emaitza.

4.– Erabiltzailearen hileroko diru-sarreraren zenbatekoa aldatzen bada, beste ebazpen bat eman ahal izango da telelaguntza-zerbitzua ordaintzeko salbuespena onartu edo ukatzeko.

**4. artikulua.**– Diru-sarrerak kalkulatzeko.

1.– Erabiltzailearen diru-sarrerak zehazteko, diru-sarrera garbi guztiak hartuko dira zenbatgarritzat, ondokoetatik eratorritako sarrerak, hain zuzen:

a) Lan-etekinak -pentsioak eta gizarte-aurreikuspeneko prestazioak barne- haien araubidea edozein dela ere.

b) Kapital higigarri eta higiezinaren etekina.

c) Enpresa- edo lanbide-jardueren etekinak.

2.– Diru-sarrerak zehazteko zenbatu beharreko aldia eskabidearen unearen -edo prezioaren ordaintzari buruzko salbuespena onartu edo ukatzeko beste ebazpen bat ematen den unearen- aurreko zerga-aldia izango da, zeinari buruz zerga-datuak baitaude.

2.– El pago se realizará en efectivo, por cualquiera de los medios especificados en el artículo 21 del Texto Refundido de la Ley de Tasas y Precios Públicos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, aprobado por Decreto Legislativo 1/2007, de 11 de septiembre.

**Artículo 3.**– Exención.

1.– Las personas usuarias gozarán de exención del pago del precio público cuando tengan un nivel de recursos económicos mensuales igual o inferior al Indicador Público de Renta de Efectos Múltiples (IPREM) mensual fijado para el periodo impositivo de referencia.

2.– El reconocimiento o denegación de la exención del pago del precio del servicio de teleasistencia se resolverá mediante Resolución del Director de Servicios Sociales del Gobierno Vasco.

3.– Cuando los miembros de la unidad convivencial de la persona usuaria dependan económicamente de ésta o cuando la persona usuaria sea menor de edad, se tendrá en cuenta la unidad convivencial a efectos de cómputo de recursos económicos. En tales casos se considerará nivel de recursos económicos mensuales de la persona usuaria la cantidad resultante de dividir entre doce y entre el número de miembros de la unidad convivencial la suma de los ingresos anuales de cada uno de los miembros de dicha unidad calculados conforme a lo dispuesto en el artículo 4 de la presente Orden.

4.– La variación en el nivel de recursos económicos mensuales de la persona usuaria podrá determinar el dictado de nueva Resolución de reconocimiento o denegación de la exención del pago del precio del servicio de teleasistencia.

**Artículo 4.**– Cálculo del nivel de recursos económicos.

1.– Para la determinación del nivel de recursos económicos de la persona usuaria se considerarán computables la totalidad de los ingresos netos derivados de:

a) Rendimientos de trabajo, incluidas pensiones y prestaciones de previsión social, cualesquiera que sean su régimen.

b) Rendimiento de capital mobiliario e inmobiliario.

c) Rendimientos de las actividades empresariales o profesionales.

2.– El periodo a computar en la determinación del nivel de recursos económicos de la persona usuaria será el correspondiente al último periodo impositivo de que se dispongan datos tributarios en el momento de la solicitud o en el de dictarse nueva Resolución sobre reconocimiento o denegación de la exención del pago del precio.

**5. artikulua.**– Prezioa ordaintzeko betebeharretik salbuesteko eskatzen denean aurkeztu beharreko dokumentazioa.

1.– Prezioa ordaintzeko betebeharretik salbuesteko eskatzen dutenek bakarrik aurkeztu beharko dute diru-sarrerak zehazteko dokumentazioa.

2.– Telelaguntza-zerbitzuaren erabiltzailearen hileroko diru-sarrerak zehazteko, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren azken autolikidazioa erabiliko da, edo, bestela, autolikidaziorik ez badago, lortutako errentei buruzko zerga-datuen ziurtagiriak edo egiaztagiriak. Agindu honetako 3.3 artikuluko begietsitako kasuan, erabili beharreko aipatutako agiriok erabiltzailearen bizikidetzako unitateko kide bakoitzari dagozkionak izango dira.

3.– Telelaguntza-zerbitzu publikoaren prezioa ordaintzetik salbuesteko eskabidea ebazteko Eusko Jaur-laritzako Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritzari zerga-datuak ematea baimendu duten pertsonen kasuan ez da PFEZ deklarazioaren kopiarik aurkeztu beharko, ezta zerga-datuei buruz zerga-administrazioak emandako ziurtagiri edo egiaztagiririk ere.

#### XEDAPEN IRAGANKORRA

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 57.4 artikulua erregelamendu bidez garatu artean, bizikidetzako unitatearen diru-sarrerak zehazteko, familia-unitatearen diru-sarrerak izango dira kontuan eta ulertuko da ekonomikoki zerbitzuaren erabiltzailearen mende dauden unitate horretako kideak inolako errentarik jasotzen ez dutenak direla.

#### AZKEN XEDAPENAK

**Lehenengoa.**– Agindu honetan xedatu gabekoetan, orohar gizarte zerbitzuei buruzko arauak eta bereziki telelaguntzari buruzkoak aplikatuko dira.

**Bigarrena.**– Ondorengo urteetan Agindu hau aplikatuko da, telelaguntzaren zerbitzu publikoari dagozkion urtean aplikatu beharreko prezio publikoaren zenbatekoa eta salbuespena zehazteko Agindua onartzen ez den artean.

**Hirugarrena.**– Agindu hau 2011ko uztailaren leian jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko ekainaren 30a.

Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburua,  
MARÍA GEMMA ARÁNZAZU ZABALETA ARETA.

**Artículo 5.**– Documentación a presentar cuando se solicite exención de la obligación de pago del precio.

1.– Únicamente quienes soliciten exención de la obligación de pago del precio deberán presentar documentación para la determinación de su nivel de recursos económicos.

2.– Para la determinación del nivel de recursos económicos mensuales de la persona usuaria del servicio de teleasistencia se utilizará la última autoliquidación del Impuesto sobre la Renta de las Personas físicas o, en su caso, por inexistencia de la citada autoliquidación, certificado o documento acreditativo de datos tributarios sobre las rentas obtenidas. En el supuesto contemplado por el artículo 3.3 de la presente Orden, los documentos citados a utilizar serán los correspondientes a cada uno de los integrantes de la unidad convivencial de la persona usuaria.

3.– No deberá aportarse copia de la declaración de IRPF ni certificación o documento acreditativo de datos tributarios expedido por la Administración tributaria relativa a personas que hayan autorizado el suministro de datos tributarios a la Dirección de Servicios Sociales del Gobierno Vasco para la resolución de la solicitud de exención de pago del precio del servicio público de teleasistencia.

#### DISPOSICIÓN TRANSITORIA

A los efectos de la determinación del nivel de recursos económicos de la unidad convivencial y en tanto no se realice el desarrollo reglamentario del artículo 57.4 de la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales, se tendrán en cuenta los recursos de la unidad familiar y se considerará que dependen económicamente de la persona usuaria del servicio los miembros de dicha unidad que no perciban renta alguna.

#### DISPOSICIONES FINALES

**Primera.**– En lo no dispuesto en la presente Orden será de aplicación la normativa sustantiva en materia de Servicios Sociales en general y teleasistencia en particular.

**Segunda.**– La presente Orden se aplicará en los años subsiguientes en tanto no se dicte nueva Orden por la que se fijen la cuantía del precio público y la exención aplicables al servicio público de teleasistencia en el ejercicio correspondiente.

**Tercera.**– La presente Orden entrará en vigor el día 1 de julio de 2011.

En Vitoria-Gasteiz, a 30 de junio de 2011.

La Consejera de Empleo y Asuntos Sociales,  
MARÍA GEMMA ARÁNZAZU ZABALETA ARETA.